

Ezetz Hegan Egin



GIDA DIDAKTIKOA

IKUSKIZUNAREN TITULUA

Aldaketa Klimatika
ingurugirorako
hondamendi larriak
ekartzen ari da eta
gaurko gizarteak zein
norbanakoen portaerak
eraldatuko ditu.
Hondamendi natural bat
jazotzen denean, azken
mendeetako
aurrerakuntza



teknologikoak nabariak badira ere, gizakiek babes-gabezia sentitzen jarraitzen dute. Kataklismo baten bat-bateko agerpenak gure espeziearen ahulezia eta inguruarekiko mendekotasun bizia gogorarazten digu.

Zikloi suntsitzaile baten hurbiltasunaren aurrean, "Tourons"-en tribuak – Uharte Ozeaniarren txoriek- beste latitudeetara laster ihes egiteko premia ikusiko du. Iragarritako hondamendiari bizirauteko, ahulenak lurrean uztea beharrezkoa izango da, baldarki hegan egiten dutenak edota hegan egin ezin dutenak alegia. Hauek istripuak, adina edota jatorria dela eta tribuaren ezinduak bezala agertuko dira.

Egungoan, pertsonai gizagaixo hauek harritasunez eskutik utziak izan direla ohartuko dira, alabaina, haizerauntsiaren aurrean elkarren artean ulertzeko beharra izango dute. Ezinbestekoa izango zaie euren talentu ezberdinen erabilera egitea eta, behin hauek bateratuak, ezbeharren kontrako babeski hobereana lortuko dute.

"Ezetz hegan egin"-n lau txori bitxik elezahar zoragarria eskainiko digute, ederra eta eduki aberatsakoa: arrazakeria, arduragabetasuna, boterearen grina, berekoikeria... baina, aldi berean, elkarren arteko laguntza, elkartasuna eta errespetua agertuko dira. Istorioak besteekiko harremanen ugaritasuna era sentikorrean eta argian islatuko du gure antzekoak diren animaliak baliatuz. Gorago hegan egin dezagun zirrara eta hausnarketa pizten duen Ikuskizun zoragarria.

1. SENTSIBILIZATZEKO ALDEZ AURRETIKO ARIKETAK.

Hainbat sentsibilizazio-ariketen bidez, Ikusleak ikuskizunaren gaira hurbiltzea proposatzen dugu.

➤ NATUR KATASTROFEEI BURUZKO NOTAK.

Neurriz gaindiko edozein natur fenomenok “katastrofe naturalak” direlakoak eragiten ditu. Hala, beroak, hotzak, haizeak, euriak, suak, lurrak... Hauek guztiek gizakientzako egoera arriskutsuak piztu ditzakete. Sumendi-erupzioak, lurrikarak, urakanak edo tsunamiak ezbehar eta aldaketa handiak sortzen dituzte eta gertatzen diren lekuko biztanleria eta ingurunearen arteko erlazioa larritasunez desorekatzen da. Dena dela, katastrofe batek izugarritzko kalte materialak eta hildako asko eragiten ditu.

Fenomeno hauek guztiek bata bestearen atzetik kateatuta dauden katastrofe gehiago dakartzaten eurekin. Lurrikara batek, lur-lasterrak eta hauen ondoriozko eraikin- eta errepide-hondamendiak ez ezik, suteak eta ur-geldialdiak ere eragiten ditu; honetaz gain itsasikara bat gertatuz gero, tsunamia edo olatu erraldoiak sortuko dira. Urakan batek eraikinak suntsitzen ditu eta, geroxeago, urak hiriak hartzen ditu, egun askotan zehar tokiko jarduerak paralizatuz. Horrexegatik, eskuarki, katastrofe natural baten ondoren gosea, egarria, gaixotasunak eta bizi-ahalmenen eskasia gertatzen dira. Hortaz, natur katastrofe bat eta honek ondorioztatutako ezbeharrak jasaten dituztenek egoera larri-larriak topatzen dituzte. Egoera larri hauetan gizakiaren jokaera aldatzen da eta gizakien arteko harremanak guztiz desorekatzen dira; halatan, bestelako portaerak eta erreakzioak agerian gera daitezke. Hona hemen duela gutxi natura-katastrofe baten adibide bat, 2010ean gertatutako Haitiko lurrikara, alegia.

Lurrikara 2010eko urtarrilaren 12an geratu zen eta historian gertatutako artean katastrofe handienetakotzat hartu da. Jazo ondoren, 200.000 hildakotik gora eta 250.000 zauri gertatu eta milioi pertsona etxebizitzarik gabe geratu ziren. Eraikin-hondamendiari azpiegiturena eta horniketa- eta komunikazio-sistemen hondamendia gehitu zitzaizkion. Hala, hiru milioi bat pertsonak lurrikaren efektuak jasan zituzten.

Lurrikararen ondoren egoera larri-larriak gertatu ziren. Ez zegoen ezta plastikozko poltsarik hildakoak gordetzeko. Ondorioz, kalean zehar geratu ziren botata, osasunerako arrisku handiarekin. Edateko ura eta janaria eskasiak ziren eta, hori dela eta, diruak balioa galdu zuen. Egoera honetan harrapakeriak, lapurretak eta denetariko desordena publikoak jazotzen hasi ziren. Egoera hauek aztertzen dituzten adituek harrapakeria-hiru gradu bereizten dituzte. Lehenik, janaria, ura eta pixoihalak lapurtzea, orokorrean, onartzen da. Txilen, mota honetako emergentzia-egoera batean zehar, presidentek saltzaileei eskatu zien elikagaiak eta premia biziko gaiak biztanleriari opari ziezazkioten. Kaleak patruilatzen zituzten militarrek gauza hauek ikustean albo batera uzten zituzten. Bigarrenik, biziraupenerako beharrezkoak ez diren ondasunak lapurtzea, telebista-aparatuak, esaterako. Kasu hauek ez dira kondenatzen zuzenki, pertsona batek janariaren trukean egin baitezake. Baina badaude egoera desberdinak. Eta hirugarrenik, orokortzen diren harrapakeriak eta bandalismoa. Batzuetan, guztien arteko liskarrak gertatzen dira eta, egoera hauetan, ahulenek kalte handiak paira ditzakete, kaltetunen euren artean, zirkunstantzia beraren ondorioz, desberdintasunak ager daitezkeelako. Baina, egoera larri-larrietan ere, oso ohikoak dira kaltetunen arteko elkarlanak eta elkarrekiko babesa.



2. IKUSLEEN FORMAZIORAKO OSTEKO ARIKETAK

1. HAUSNARKETARAKO BIDEAK

Hurrekin ikuskizunean landuriko hainbat gaitan oinarrituriko elkarrizketa-debate bat ezartzea proposatzen dugu.

1.1. ABANDONUA.



Abiatu direnek Kontakizunaren lau pertsonaiak abandonatu dituzte:

- Zein argumenturekin justifikatzen da abandonua?

1.2. MINUSBALIOTASUNA.

Pertsonaia bakoitzak muga edo minusbaliotasun bat dauka. Zeintzuk dira?:



- Zein neurritatik hartzen da ez-normaltzat norbait?
- Zein da normaltasunaren muga?
- Normala al da ahulegiak abandonatzea?
- Ezagutzen duzue kontrako jarreraren adibideren bat eta pertsonaia ahulak sartuta dauden proiekturen bat? Nola hartu zen kontuan norberaren “minusbaliotasuna”?

1.3. FIKZIOAREN ETA ERREALITATEAREN ERLAZIOA.

Kontakizunaren une batean, fabula bat dena, Apére pertsonaia zaharrak honako hau esaten die gainerako pertsonaiei: “Gizakiak dirudizue!”:

- Uzte duzue fabulan gertatzen dena gure bizitzan gerta litekeela?
- Kontakizunak bizi duzuen edo lekuko zaudeten egoeraren bat gogorarazten dizue? Gogoratzen duzue zein pertsonaia arbuiatu edo marjinatu dituzte ahultasunaren ondorioz?



1.4. ELKARTASUNA ETA BIZIRAUPENA.

Txori gehienek hiltzeko arriskua saihesteko uhartetik hies egin dute:

- Nola organizatzen dira abandonatutako lau txoriak?
- Orain arte bizi izan direna ez bezalako organizazioa eraikitzea lortu dute?

Hiltzeko arrisku bat hurbil egoteak aurreiritziak alde batera uztera eta elkarlanean aritzera behartzen ditu:

- Zuen iritzian, kontakizunaren hasieratik zerk bultzatzen ditu solidarioagoak izatera?

1.5. FABULAREN MEZUA

- Nola bukatzen da fabula?
- Urakanetik ihes egin zuten txoriei zer gertatu zaie?
- abandonaturik geratu zirenei zer gertatu zaie?



2. IDENTIFIKAZIO JOLASA

Lau pertsonaiek muga edo minusbaliotasun bana daukate, hegaz egitea galarazten diena. Norberak daukan berezko arazoa besteen arazoaren desberdina da.

Azal itzazue umeezin batera pertsonaia bakoitzaren ezaugarriak eta marraz itzazue.



HEMATOMA


bat da.

Hematoma dioxina erradioaktiboez beteriko zisterna batera jausi zen eta bere motor-sistema hondatu da, ondorioz, ezina egiten zaio mugimendurik koordinatzea. Apurka hegaz egitea lortze da, baina guztiz motel dabil eta nekatzen da. Baina borondate handiz hegaldi-erradio telegrafista izan nahi du. Gainerakoek oztopo bat baino ez dela uste arren, bere burua tribu-kidetzat hartzen du. Denek badakite inoiz ez duela lortuko hegaz egiterik; halere, errukiagatik, hegaldi-eskolan onartu dute. Touron

bat da. Ma lodiegi dago eta pisu handiaren erruz ezina egiten zaio hegadarik egitea. Hegalak astintzen dituenean, ozta-ozta altxatzen ditu oinak lurzorutik. Izugarri gustatzen zaio jatea, hainbestearino, ezen egun osoa jaten ematen baitu. Touron bat da.



MA



EPITE

Epité txori-espezie desberdin bateko kide da eta, berez, hegaz egiten ez daki, igerian baizik. Baina uste dut Tourons tribu-kide dela. Besteen hegadak eta portaerak imitatzen saiatzen da, bana arrotzak eta guztiz bitxiak dira bere mugimenduak. Apurka desberdina dela ohartuko da. Tuqua bat da

Apère oso zaharra izateaz gain, Konbate batean zehar hegala batean hartutako zauri baten ondorioz hebaundurik geratu zen. Tooquaren kontra hainbat konbatetan aritu da, izan ere, arrantzagatik Tourons eta Touqua borrokan dabilta. Oso portaera bortitza izan zuen eta gerra-krimenengatik uhartearen beste aldetik erbesteratu zuten. Bere herrikoek jaten eta edaten ematen diote; baina beti ere irlatik urrun.



APERÉ

- Zer desberdintasun ikusten duzu lau arazoaren artean?
- Zein iruditzen zaizu grabeena, eta zergatik?
- Lau pertsonaietako zein da zure ustez ahulegia?
- Zure ustez elkarren artean zeintzuek dauzkate abantaila gehiago?

Zure ustez, Gorreria, itsumena, mugimendu fisikoaren arazoa, buruz atzeramena, autismoa, buruko eritasuna... Zein iruditzen zaizu arazo grabeena? Zergatik? Zeintzuk dira zure ustez ezgaitasun hauen arazoak? Ezgaitasun bat hautatuz gero, zein irudituko litzaizuke jasagarriena?

3. EGOERAREN ESPLORAZIO DRAMATIKOA.

Jarraian, espresio-dramatikoazko hainbat proposamen jasotzen dira, jolasa eta ekintzaren bidez, ikuskizunean agerturiko gai batzuk antzezteko aukera ematen dutenak.

Jokoa sustatzeko objektu gisa aulkiak aukeratu dira. Eskolan dauden eta transformazio anitz jasan ditzaketen ohiko objektuak.

3.1. UHARTE BAKARTIAK

Aulki bakoitza itsasoan flotatzen duen uharte bat da. Uharte bakoitzean, itsasikara baten ondoren ailegatu den itsasoan galdutako pertsona bat dago. Uharte txikiak dira.

Gorputza eta aulki-uhartearen arteko hainbat erlazio esploratu daitezke.

Lasai lo egiteko jarrera, arrantza egiteko beste bat, jateko jarrera. Baita horizonterantz begiratu ala norbaitez ezkutatu gaitezke.

Jokoa luzatu daiteke bi aulki ezberdinetan dauden pertsonak batuz. Nola jan, arrantza egin, lo egin... dezakete elkarrekin?

3.2. IBILALDIA BASOAN ZEHAR

Oraingo honetan baso bat izango da aukeraturiko lekua, gelako aulkiak zuhaitzak izango dira. Neska-mutilak basoa esploratzera gonbidatzen ditugu urruneko musika baten melodia entzuten duten bitartean. Hauxe gelditzean, pertsonaiak ezintasunen bat daukaten pertsonak bihurtuko dira:

- Herren dagoen pertsona, poliki ibiltzen dena.
- Pertsona ahomotela, abesti bat abestu ala olerki bat errezitatu behar duena basoa zeharkatzen duen bitartean.
- Oso lodi dagoen pertsona, gertu dauden zuhaitzen artean mugitzen dena hauek ez ukitzen saiatuz.
- Itsu dagoen pertsona, basoa ukimena eta bere begien oroitzapenen bidez esploratzen duena, lekua betetzen duen musika sentitzen duen bitartean.
- Parte hartzaileek proposaturiko beste edozein.

3.3. MUTURREKO EGOERAK

Hainbat parte hartzailez eta haien aulkiz osaturiko talde ezberdinak osatzen dira. Aulkiak eta imajinazioa muturreko egoerak konpontzeko erabili ahal dituzten baliabide bakarrak dira, esaterako, hondamendi naturalek sorturiko egoerak.

Proposamen ezberdinak esploratu daitezke:

- Gauaz babesteko aterpe bat eraikitzea sumendi baten labak eragindako mehatxuengatik etxetik ihes egin ondoren.
- Txalupa bat eraikitzea etortzear dagoen uholdeetatik libratzeko.
- Babeserako harresi bat altxatzea sute batek herrian sor ditzakeen kalteak ekiditeko.

Gauzaturiko eraikinak hainbat egoera esperimentarazten dizkien jolasaren eszenatokia izan daitezke.

- Koexistentzia: inprobisaturiko gunen batean elkarrekin bizitzera ikasi.
- Zailtasunak: Osasun larrialdi bat daukagu, hornidurak agortzen zaizkigu.
- Elkartasuna: Inbasio bati aurre egitea, ekaitza bati aurre egitea.
- Ezberdintasunak: Taldeko kide bat edo bat baino gehiago ados ez dauden egoera bat aukeratu. Adibidez: Ezinezkoa da guztiak aterpean sartzea, harresiak bakarrik taldearen zati bat babes dezake, janari urria dago eta ez da nahikoa guztiontzat...

3.4. ELKARTASUNA

Taldeak, lurrikara batek eragindako zaborraren irudian oinarrituz, orekaturik dauden aulki-bide bat osatzen du Bidea aulki bat bestearen gainean sostengatuz eraikitzen da. Hori bai! Kontuz ibili behar gara, aulki bakoitza bestearen gainean ondo sostengatzen dela ziurtatuz.

Helburua taldeko kide guztiek oztopoz eta zailtasunez beteriko bidea zeharkatu ahal izatea da. Horretarako, taldeko kide batzuk zaborraren gainetik ibiltzen diren bitartean, besteek, kanpotik, laguntzen die eta arazoetaz ohartzen die. Ondoren, rolak aldatzen dira bi bizipenak esperimintatzeko: laguntzea eta lagunduta izatea. Bukatzeko, esperientziari buruz hitz egin daiteke.

3. I. ANEXO - MINUSBALIASUNAREN HISTORIAREN LABURPENTXO BAT

Minusbaliasun terminoak bizi-egoera eta baldintza desberdinak dauzkaten pertsonak elkartzen ditu; hala, itsuak, gorrak, elbarriak, buruz atzeratuak, buru-paralisedunak, hebainduak, eskizofrenikoak... Horiei guztiei minusbaliatuak deitzen zaie. Bere kabuz edozein bizi-jarduera egiteko gai ez dena minusbaliatutzat daukagu, esaterako, mugitzeko, jateko, beste guztiekin harremanak izateko, eta abarretarako gauza ez den pertsona. "Minusbaliasun" nozioa eta "balio" eta "baliagarritasun" kontzeptuak guztiz lotuta daude. Orokorrean, oso erlazio estua dago eta kasu guztietan halako baliokidetasun bat egitera baino ez gara mugatzen. Dena dela, minusbaliatuak diren pertsonak gauzaeztatzat hartzen ditugu, trabak balira bezala.

Betidaniko kontua izan da historian zehar minusbaliatuei egindako marginazioa. Halaber, garai guztietan desgaituekiko paternalismoa eta babes-joerak agerikoak izan dira.

Fosilei eta hezur-aztarnei egindako azterketei esker, historiaurreko minusbaliatuen kasuak ezagutzen dira. Sortzetiko edo hartutako malformazioen bat zeukaten pertsonen arrastoak. Aldiz, eskasiak dira. Garai hartako datu-eskasiaren dela eta, desgaituekin zeukaten erlazioari buruzko baieztapen ziurrak egitea zaila da. Baina, hala eta guztiz ere, bere kabuz bizi-jarduerak egiteko gai ez ziren helduen hezurak aurkitzeak, hein batean, taldekoek minusbaliatuak babesten eta onartzen zituztela jakinarazten digu.

Antzinaroan ohikoa zen infantizidioa praktikatzeko. Espartan, borrokan ari-tzeko eta armez baliatzeko eragozpenen bat zeukaten haurtxoak mendian behera botatzen zituzten. Atenasen eta, geroxeago, Erroman edo Mendebaldeko herrialdeez haraindik herrietan, esaterako, Indian, Txinan, Mesopotamian, Persian, baita Kolon aurreko Amerikan ere, minusbaliasunen batekin jaitakoak babesik gabe abandonatu edo hil zituzten. Aristoteles filosofoak berak, Platon irakasleari jarraituz, praktika honen beharra berretsi zuen, honako hitzak esanda: "Seme-alaben abandonuari eta hezierari dagokionez, hebainduen daudenak hezteko lege debekatu behar da". Antzinaroan desgaituen aurrean jarrera errukiorragoarekin pertsonen adibide bakan batzuk ere bazeuden; hala,

hurrengo filosofoek: Zoroastro, Iranen; Konfuzio, Txinan; Buda, Nepalen; eta Galeno medikuak ulerkortasuna eta ardura erakutsi zituzten ezgaituenganatz.

Europar, Erdi Aroan, kristautasunaren eraginari eta karitatea praktikatzeko obligazioari esker, ezgaituen tratatzeko orduan aurrerapen batzuk nabaritu ziren. Adibide moduan, lehenengo asiloak eta abegi-aterpetxeak sortu ziren. Hala ere, minusbaliatua bazterrean uzten jarraitu zuten, eta, are gehiago, batzuetan ezbehar guztiak (izurriteak, goseteak) haiei leporatzen zizkieten; beste batzuetan, Bufoien kasuan adibidez, barre egiten zieten; baina gehienetan eskaletasunetik bizi ziren derrigorrez. Gainera, kristauek paternalismoa eta limosna baino ez zituzten gauzatzen ezgaituekin; horren ondorioz, ezgaituak bazterreratuak eta oztopoak balira bezala bizi ziren.

Erdi Aroan zehar asko aurreratu zen medikuntzan eta hainbat protesi berriak sortu ziren. Teoria-mailan, Humanismo garaian batez ere, ez ohiko berezitasunen bat zeukaten pertsonenganako sentsibilitatea handiagotu zen eta gizartekidetzat jotzen hasi ziren. Juan Luis Vives humanistak "hezkuntza eta lana" defendatu zituen ezgaituak gizarteratzeko xedearekin. XVI. mendean, adibidez, Pedro Ponce Monje Beditarrak metodo berezi bat eratu zuen gorrei hitz egiten irakasteko. Halere, herritar gehienek betiko jarrera izaten jarraitu zuten ezgaituen aurrean. Hau azpimarratzeko, Lutero eta Kalbinoren iritziak dauzkagu, minusbaliatuen gorputz-barnean Satanasek bere egoitza zeukala uzte baitzuten. Dena dela, ezgaituak zaintzen zituzten instituzioek hauek baztertu, giltzaperatu eta, azken finean, marjinatu besterik ez zuten egiten.

XIX. mendean zehar zenbait hobekuntza egin ziren, esaterako, legeria berriak, asmakizunak (itsuek irakurtzeko metodo Braille), irakasbide berriak (gorrentzako zeinu-hizkuntzaren bidezko heziketa) eta abegi-aterpetxeak. Hauei guztiei esker, ezgaitasunaren tratamendua limosnatik eta paternalismotik haratago heldu zen; hori bai, esterilizazioak eta eutanasia praktikatzen jarraitu ziren. Infantizidioa, umetxoak abandonatzea, enkanteak eta ezgaituen salmentak (esklabo bihurtzeko edo eskulan merkea bezala erabiltzeko) guztiz ohikoak ziren. Teoria mailan, Darwinek idatzitako espezieen eboluzioari buruko teoriak interpretatzean, bizirik jarraitzeko eboluzio gutxien zeukatenekiko edo ahulenekiko diskriminazioa berragertu zen gizarte-arloan, eta marjinazioa eta eliminazioa praktikatzen jarraitu zuten.

XX. mendean, Estatu Batuetan batez ere, ezgaitasunak eragindako kalte dunei laguntzarako (kalte duna zuzenak eta familiakoak) makina bat instituzio sortu ziren. Hauetan integratzeko ahalegina babes emateko helburua baino handiagoa izan zen; honetaz gain, ezgaituen espezifikotasunen gaieneko tratamendua ematen hazi ziren, hau da, ezgaitasun eta honen arazo konkretuak tratatzea helburua zen. Hala eta guztiz ere, eta orokorrean zegoen tendentziari aurre bortitza eginez, XX. mendean sistema faxistak garatu ziren, ezgaituekin, batez ere, guztiz intoleranteak zirenak; izan ere, faxisten iritzian, ez ziren duinak bizirik jarraitzeko eta pertsonak normalen aldean behe-beheko mailan zegoen. Horren ondorioz, bakarrik kontzentrazio-esparru nazietan, ezgaitasun-motaren bat zeukaten 90.000 pertsonatik gora giltzaperatu, esterilizatu eta hil zituzten.

Bigarren Mundu Gerra bukatu zenetik gaur egunera arte, ezgaituen elkarteak ugartu eta hezkuntza bereziko programak orokortu ziren. Honetaz gain, etengabe hobetzen ari dira ezgaituen bizi-baldintzak. Halere, minusbaliatuak, neurri handian, pertsona marjinala izaten jarraitzen du, orokorrean ezezaguna eta minusbaliatuaren statusagatik guztiz baldintzaturik.

Minusbaliotasunaren historian ezgaituen bizi-baldintzak eta hauen baliagarritasunaren kontsiderazio soziala lotura handia izan dute. Hala, Gizarte bakoitzeko arrazoiak eta ezgaituen bizi-baldintzak eta duintasuna uztartuta daude; ondorioz, zer den baliagarri eta zer ez den, eta normaltasuna definitzeko zeintzuk diren baremoak kontzeptu zeharo garrantzitsuak dira minusbaliotasunen bat zeukatenentzat.

Kaixo Lagunak:

Teatro Paraíso gara eta "Ezetz hegan egin" ikuskizuna nola jaio zen kontatu nahi dizuegu, gurekin antzerkiaren bidezko abentura berri hau konpartitzera gonbidatzen zaituztegun bitartean.

Gure planetan, hondamendi naturalak (uholdeak, lurrikarak, sumendien erupzioak, zikloiak, etab.) bizi ditugun aldaketa klimatikoaren ondorioz sortzen dira. Orain direla hainbat urte, egunkarian Katrina urakanari buruzko berri bat irakurri genuen, AEBtako historian zehar gertaturiko hondamendi naturalik handiena. Albiste honek hondamendiak gizarteko ahulenen gainean eragina izan zuela jakinarazi zigun, hau da, edonolako ezintasunaren bat zutenen gainean.

Berri hau asko pentsarazi zigun, eta hondamendi natural baten protagonistek bizi dituzten sententzioetan oinarrituriko istorio bat asmatzea erabaki genuen.


Gure istorioa kokatzeko leku bat, uharte bat, lau txori pertsonai gisa, bakoitzak berezko ezintasun batekin, eta heltzean dagoen zikloi bat imajinatu genituen. Eta horrela jaio zen gure ikuskizun berria "Ezetz hegan egin", Les Ateliers antzerki-konpainia belgikarrekin batera aurrera eraman duguna.

Guk aurkezpenerako beharrezkoa den guztia antolatzen dugun bitartean, zuek gaiari buruzko gauza gehiago aurki ditzakezue hondamendi naturalei buruzko berriak eta haien protagonisten ondorio eta bizipenei buruz informazioa bilatuz

Zuekin "Ezetz hegan egin" ikuskizuna konpartitzeko gogo asko dauzkagu.

Antzerkian egongo gara zuen zain. Besarkada handi bat.

Snd. Teatro Paraíso.



Azken berria: "Ezetz hegan egin" ikuskizunaren entseguak 2010eko apirilean hasi ziren, zehazki Europako aire-espazioa Islandiako sumendi batek eragindako errautsengatik itxita geratu baino aste bat lehenago. Ikuskizunaren zuzendariak, Belgikako Mathias Simons eta Dino Corradini, ezin zuten haien etxeetara bueltatu hegaldi guztiak bertan behera utzi zirelako. Kasualitatea izan zen?...